

Unibertsitatea



Bi unibertsitate mota ditugu: unibertsitate publikoak eta unibertsitate pribatuak. Horiez gain, Eliza Katolikoko unibertsitateak daude, Estatuaren eta Vatikanoren arteko konkordatuek arautuak.

Unibertsitateak erakunde autonomiadunak dira eta nahi dituzten ikasketak eskaini ditzakete. Ikasketa horiek bi motatakoak dira:

- **Titulu ofizialak:** Estatu osoan balioa dute. Unibertsitateak Koordinatzeko Kontseiluak proposaturik, Gobernuak ezar-tzen ditu. Titulu horien ikasketa planetan gutxieneko edukiak sartu behar dira: enborreko irakasgaiak. Unibertsitateek horiei gehitzen dizkiete unibertsitate bakoitzak ezarritako nahitaezko irakasgaiak, ikasleendako aukerako irakasgaiak eta osaera libreko irakasgaiak.
- **Unibertsitate bakoitzaren tituluak.** Ez dira homologatzen; beraz, ez dute balio akademikorik. Ikasketa planak malguak dira eta. Horien artean sartzen dira Masterrak, Adituak eta beste batzuk.

Unibertsitateko ikasketen egitura


Unibertsitateko titulu bat eskuratzeko **kreditu** kopuru jakin bat (ikasturteko 60tik 90 arte) atera behar dira. Kreditua ikasketak baloratzeko unitatea da eta 10 irakastordu ditu.

Unibertsitateko ikasketak **ziklotan** antolatzen dira:

- **Lehen Zikloko** ikasketak: hiru urtekoak dira eta 180tik 270 kreditu bitarte egin behar dira. Lehen Zikloko titulazioak *Diplomatura*, *Arkitektura Teknikoa* edo *Ingeniaritza Teknikoa* izenekin ezagutzen ditugu.
- **Lehen Zikloko** eta **Bigarren Zikloko** ikasketak: 300dik 450 kreditu bitartekoak dira eta lau, bost edo sei ikasturtetan egin daitezke. Bigarren Zikloa gainditu ondoren eskuratutako titulazioak *Lizentziatura*, *Arkitektura* edo *Ingeniaritza* izenekin ezagutzen ditugu.
- **Bigarren Zikloko** ikasketak: beste ikasketa bateko (Biokimika, Ikus-entzunezkoen Komunikazioa, Materialen Ingeniaritza eta abar) Lehen Zikloa gainditu ondoren egin daitezke.
- Azkenik, **Hirugarren Zikloa** dugu. Ikasketa espezializatuak dira, eta ikerkuntzarako eta irakaskuntzarako prestatzen dute. *Doktore* izatera bideratzen dute ikaslea.




Lehen zikloko karrerek bide ematen dute bigarren zikloetara pasatzeko, batzuetan zuzenean eta beste batzuetan "pasabide" edo prestakuntza osagarrien bidez. Soilik lehen zikloko karrera egin nahi baduzu, ondoren bigarren ziklo batera pasatzeko, aurretik galde ezazu zer aukera dauden hori egiteko.



Irakasgaiak

Lau motatakoak dira: enborrekoak, nahitaezkoak, aukerakoak eta osaera librekoak.

- **Enborreko irakasgaiak:** titulu ofizial bat eskuratzeko balio duten ikasketa plan guztietan sartu behar dira. Gobernuak zehazten ditu, Unibertsitateak Koordinatzeko Kontseiluak proposaturik.
- Unibertsitate bakoitzeko ikasketa planean zehaztutako irakasgaiak:
 - **Nahitaezkoak:** unibertsitate bakoitzak erabaki eta ikasleendako halakotzat hartutakoak.
 - **Aukerakoak:** unibertsitate bakoitzak ezarritakoak (ikasleek haien artean aukeratu behar dituzte).
 - **Osaera librekoak:** ikasleak aukeratuko ditu unibertsitateko beste ikasketa batzuetako irakasgaien artean.





Unibertsitatean sartzea

BATXILERGOTIK SARTZEA



Ongi aski jakinen duzun bezala, unibertsitateko ikasketetan sartzeko Batxilergoko modalitateekin lotzen diren bost bide daude. Horrez gain, unibertsitateko karrera batean matrikulatzeko **Unibertsitatean sartzeko Proba** gainditurik behar duzu izan.

Ondoko laukietan ikus ditzakezu sarbide bakoitzari atxikitako Batxilergoko irakasgaiak eta sarbide bakoitzetik abiatuta zein karreratan sar zaitezkeen.

SARBIDEAK	Irakasgai atxikiak (Nahitaezkoak sarbide proban)	Batxilergoko modalitatea
ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOA	- Matematika II - Fisika	- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK - TEKNOLOGIA
OSASUN ZIENTZIAK	- Biologia - Kimika	- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
GIZA ZIENTZIAK	- Latina II - Artearen Historia	- GIZA ZIENTZIAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK
GIZARTE ZIENTZIAK	- Gizarte Zientziei aplikatutako Matematika II - Geografia	- GIZA ZIENTZIAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK
ARTEAK	- Artearen Historia - Marrazketa Artistikoa II	- ARTEAK

UNIBERTSITATEKO KARRERAK

Lizentziaturak, Arkitektura eta Ingeniaritzak

SARBIDEAK

Zientzia eta Teknika
Osasun Zientziak
Giza Zientziak
Gizarte Zientziak
Arteak

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza	●	●		●	
Arkitektura	●	●			
Arte Ederrak	●	●	●	●	●
Biologia	●	●			
Ingurugiroaren Zientziak	●	●			
Gorputz eta Kirol Jardueraren Zientziak	●	●	●	●	●
Itsasoaren Zientziak	●	●			
Politikaren eta Administrazioaren Zientziak	●	●	●	●	●
Ikusentzunezko Komunikazioa	●	●	●	●	●
Zuzenbidea	●	●	●	●	●
Ekonomia	●	●		●	
Farmazia		●			
Filologia			●		
Filosofia	●	●	●	●	●
Fisika	●	●			
Geografia	●	●	●	●	●
Geologia	●	●			
Historia			●	●	●
Artearen Historia			●	●	●
Giza Zientziak	●	●	●	●	●
Aeronautikako Ing.	●	●			
Nekazaritza Ing.	●	●			
Bide, Ubide eta Portuetako Ing.	●	●			
Mehatzetako Ing.	●	●			
Mendi Ing.	●	●			
Telekomunikazio Ing.	●	●			
Informatika Ing.	●	●			
Industri Ing.	●	●			
Ontzигintzako eta Ozeanoko Ing.	●	●			
Ing. Kimikoa	●	●			
Matematika	●	●			
Medikuntza		●			
Odontologia		●			
Pedagogia	●	●	●	●	●
Kazetaritza	●	●	●	●	●
Psikologia	●	●	●	●	●
Publizitatea eta Harreman Publikoak	●	●	●	●	●
Kimika	●	●			
Soziologia	●	●	●	●	●
Itzulpenгintza eta Interpretaritza	●	●	●	●	●
Albaitaritza		●			

**UNIBERTSITATEKO
KARRERAK**

**Diplomaturak,
Arkitektura Teknikoak
eta Ingeniaritza Teknikoak**

SARBIDEAK

Zientzia eta Teknika
Osasun Zientziak
Giza Zientziak
Gizarte Zientziak
Arteak

Arkitektura Teknikoa	●	●			
Bibliotekonomia eta Dokumentazioa	●	●	●	●	●
Enpresa Zientziak	●	●		●	
Gizarte Hezkuntza	●	●	●	●	●
Erizaintza		●			
Estatistika	●			●	
Fisioterapia		●			
Kudeaketa eta Administrazio Publikoa	●	●	●	●	●
Aeronautikako Ing. Tek.	●	●			
Nekazaritzako Ing. Tek.	●	●			
Mehatzetako Ing. Tek.	●	●			
Herrilanteko Ing. Tek.	●	●			
Telekomunikazioko Ing. Tek.	●	●			
Diseinu Industrialeko Ing. Tek.	●			●	●
Kudeaketarako Informatikako Ing. Tek.	●	●			
Sistemen Informatikako Ing. Tek.	●	●			
Topografiako Ing. Tek.	●				
Oihanteko Ing. Tek.	●	●			
Industri Ing. Tek.	●	●			
Ontzigtzako Ing. Tek.	●	●			
Logopedia	●	●	●	●	●
Maisutza	●	●	●	●	●
Ontzigtzako Makinak	●	●			
Itsasketa	●	●			
Optika eta Optometria	●	●			
Podologia		●			
Ontzigtzako Erradioelektronika	●	●			
Lan Harremanak	●	●	●	●	●
Lan Bidezko Terapia	●	●	●	●	●
Gizarte Lana	●	●	●	●	●
Turismoa	●	●	●	●	●
Giza Nutrizioa eta Dietetika		●			

Sarbide proba

Proba honek zure heldutasun akademikoa eta jasotako jakintzak baloratzen ditu.

Bi zati ditu:

Lehen zatia. Batxilergoko irakasgai komunen gainekoa da. Hiru ariketa ditu:

- Gai edo kontu historiko baten gaineko testu bat idaztea, hainbat informazio iturriren azterketatik abiatuta.

Iraupena: ordu eta erdi.

- Atzerriko hizkuntza batean idatzitako testu arrunt eta ez-espezializatu bat aztertzea. Testuaren iruzkin pertsonala egin behar da eta testuarekin zerikusia duten galderei testuaren hizkuntza berean erantzun behar zaie.

Iraupena: ordu eta erdi.

- Gaztelaniazko testu bat aztertzea eta ulertzea. Egin beharrekoa: testuaren laburpena eta/edo eskema, hura aztertzeko eta laburtzeko gaitasuna zein den frogatzeko; edukiaren gaineko iruzkin kritikoa, eta testuarekin zerikusia duten galderei (hizkuntzaren eta literaturaren gainekoei) erantzutea.

Iraupena: ordu eta erdi.

“D hizkuntza eremuan” ikasi baduzu, laugarren ariketa bat egin beharko duzu. Proposatuko dizuten testu bat abiapuntu harturik, hau egin beharko duzu: testuaren laburpena eta/edo eskema, hura aztertzeko eta laburtzeko duzun gaitasuna frogatzeko; edukiaren gai-



neko iruzkin kritikoa, eta testuarekin zerikusia duten galderei (euskal hizkuntzaren eta literaturaren gainekoei) erantzutea.

DBHn eta Batxilergoan "A hizkuntza ereduan" ikasi baduzu, laugarren ariketa bat egin beharko duzu. Euskarazko testu arrunt eta ez-espezializatu bat aztertu beharko duzu. Egin beharrekoa: testuaren gaineko iruzkina eta testuarekin zerikusia duten galderei erantzutea. Galderak zein erantzunak euskaraz idatzi beharko dira.

Bigarren zatia. Batxilergoko 2. kurtsoko modalitateko hiru irakasgaien gainekoa da. Horietako bi nahitaez izanen dira aukeratu duzun sarbideari atxikitakoak; hirugarrena, aldiz, 2. kurtsoan ikasitako modalitatekoen artetik aukeratu duzun bat izanen da.

Irakasgai bakoitzari dagozkion probetan hainbat proposamen izanen duzu; horietatik bat aukeratu beharko duzu.

Iraupena: ordu eta erdi irakasgai bakoitzeko.

Batxilergoan bi sarbideri atxikitako irakasgaiak ikasi



eta bietan lehiatu nahi baduzu, aukeratutako sarbideei atxikitako lau irakasgaien azterketa egin beharko duzu.

Probaren kalifikazioa

Ariketa bakoitza 0 eta 10 bitartean kalifikatuko da.

Lehen zatiaren kalifikazioa hau izanen da: hiru ariketatako bakoitzean edo, A eta D ereduari dagokienez, lau ariketatako bakoitzean lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa.

Bigarren zatiaren kalifikazioa hau izanen da: sarbideari atxikitako irakasgaietan lortutako kalifikazio bakoitzaren %40 gehi aukeratutako modalitateko irakasgaietan lortutako kalifikazioaren %20.

Sarbide proba bi sarbidetan egiten baduzu, 2. zatian bi kalifikazio izanen dituzu, sarbide bakoitzeko bat.

Probaren **kalifikazio osoa**: bi zatietan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa.

Gai zarela aitortzeko, puntuazio osoa gutxienez lau puntukoa izanen da.

Behin betiko kalifikazioa

Unibertsitatean sartzeko **behin betiko kalifikazioa** hau izanen da: probaren kalifikazio osoaren %40 (beti ere 4 puntutik beherakoa ez bada), gehi Batxilergoko zure ikasketa espedientearen batez besteko kalifikazioaren %60 (ez da Erljioko kalifikazioa kontuan hartuko).

Bi sarbideri dagozkien probak egin badituzu, behin betiko bi kalifikazio izanen dituzu, sarbide bakoitzeko bat.



Unibertsitatean sartzeko proba gainditzeko, behin betiko kalifikazioan bost puntu edo gehiago atera beharko dituzu.

Ados ez bazaude lortu dituzun kalifikazioekin, epaimahaiburuari eska diezaiokezu ariketak berriz zuzentzeko, kalifikazioak argitaratu eta hiru laneguneko epean. Irakasle espezialista batek (lehen aldiz zuzentzaile aritu ez zen beste batek) zuzenduko ditu berriz ariketa horiek. Ariketa horien kalifikazioa bi zuzenketen batez bestekoa izanen da.

Unibertsitatean sartzeko Probak gainditzeko lau deialdi dituzu, gehienez ere.

Behin proba gainditu eta kalifikazioa igo nahi baduzu, hurrengo deialdietan aurkez zaitezke.

Deialdi horietan lortutako kalifikazioa kontuan hartuko da soilik aurrekoa baino handiagoa bada. Hala egingen baduzu, proba sarbide bakarrean egin dezakezu.

Arte Ederretako, Gorputz eta Kirol Jardueren Zientzietako, eta Itzulpengintzako eta Interpretetzako lizentziaturetan sartzea.

Unibertsitateek probak egin ditzakete ikasketa horietarako ikaspostuak eskatzen dituztenen gaitasunak balioztatzeko, eta gai edo ez gai kalifikazioak eman ditzakete.

Unibertsitatean nola sartu

Zuk nahi adina unibertsitatean eska dezakezu ikaspostua. Horretarako, aski duzu unibertsitate bakoitzetarako eskabide bakarra aurkeztea. Eskabide horretan adierazi beharko duzu, zein unibertsitatean egin nahi duzun matrikula, han zer ikasketak egin nahi duzun, lehentasun hurrenkerari jarraikiz.

Unibertsitate bakoitzak jendaurrean jarriko du bere zentroetan eskabidea egiteko zer egin behar den, zein diren horretarako berariazko epeak eta zer agiri ekarri behar den. Oro har, eskabidea posta ziurtatuaren edo internet bidez igor daiteke.

ONARTZEKO IRIZPIDE OROKORRAK

Ikaspostuak mugatu dituzten unibertsitate publikoetako zentroetan edo ikasketetan, eskabideetan honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: lehentasuna, hobespena eta balorazioa.

Lehentasuna

Ikaspostua eskuratzeko lehentasuna izanen dute unibertsitatean sartzeko proban aukeraturiko sarbideari lotutako unibertsitateko ikasketak hasi behar dituzten ikasleek (ikus 6. eta 7. orrialdeak).



Hobespena

Sartzeko lehentasuna dutenen artean, hobetsiko dira:

- Lehenik, ikaspostua zein urtetan eskatu den, urte horretako ekaineko deialdian edo aurreko urteetako deialdietan unibertsitatean sartzeko probak gainditu dituzten ikasleak.
- Bigarrenik, unibertsitatean sartzeko probak ikasturtean ikasturteko iraileko deialdian gainditu zituzten ikasleak.

Lehen zikloko ikasketak dituzten unibertsitateek eta unibertsitate eskolek ikaspostuak gordeko dituzte goi mailako heziketa ziklo bat gainditu eta haietan sartu nahi duten ikasleendako.

Autonomia erkidego bakoitzeko Gobernuak zehaztuko du ikaspostu horien kopurua.

Balorazioa

Lehentasun eta hobespen irizpideak ezarririk, egoera berean dauden ikasleen artean ikaspostuak esleitu behar direnean sarbide probako behin betiko kalifikazioa hartuko da kontuan.

ERREKLAMAZIOAK

Eskabidea tramitatzean edo ikaspostua esleitzean akatsik egiten bada, horien kontrako erreklamazioa egin daiteke. Horretarako, idazki bat bidali behar da kasuko Unibertsitateko Errektoregora. Unibertsitate bakoitzak finkatzen du erreklamazioak egiteko epea.





MATRIKULAZIOA

Matrikula egin behar da unibertsitateko zentro bakoitzak ezarritako epeetan (aurretik onartuen zerrendan egon behar duzu). Kontuan izan zerrenda horiek aldatzen direla. Onartutako ikasleen lehen zerrendan ez bazara ageri, ez larritu, ez baita behin betikoa; behar bada beste ikaspostu huts bat eslei diezazukete edo zuk zerorrek eskatutako beste ikasketa bateko onartuen zerrendan egon.

Unibertsitateek uzten dute ikasketa batean behin-behinekoz matrikulatzera, beste ikasketa batean onartu gabe bazaude ere; hala ere, horretarako beti bada azken egun bat.

Lehen kurtsoko matrikula osoa izanen da.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) onartzea eta matrikulatzea

Ekaineko 2. hamabostalditik aurrera eska dezakezu ikaspostua unibertsitatean ikasten hasteko. Ministerioak horretarako egunak zehaztuko ditu eta unibertsitate guztietarako balioko dute. Izena aurretik emateko epeak bi dira: ekainekoa eta irailekoa.

Izena eman daiteke 6 titulaziotan, gehienez ere.


Aurretiko izen-ematea Internet bidez egingen da. Unibertsitateak ordenagailuz hornitutako gelak jarriko ditu, etxean ordenagailurik ez baduzu han bertatik egiteko.

Ikaspostua esleituko da eskabidean ageri den hobespen hurrenkeraren arabera.

Matrikula uztailean egiten da. Hala ere, sarrera berriko ikasleek geroago egin dezakete matrikula, zerrendan aldaketak gertatu direnean.

Argibide gehiago nahi izanez gero, joan zaitez Gazteei argibideak emateko unibertsitateko Bulegora:
Tel. 948 16 90 96
E-mail:
infoacceso@unavarra.es

Argibide gehiago:
www.unavarra.es



Nafarroako Unibertsitate Publikoak ematen dituen ikasketen zerrenda:

LEHEN ETA BIGARREN ZIKLOKO KARRERAK

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza
- Zuzenbidea
- Enpresen Zuzendaritza eta Ikasketa Juridikoak (titulazio bikoitza: Zuzenbidea + Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza)
- Ekonomia
- Ingeniari agronomoa
- Industria ingeniaria
- Telekomunikazioetako ingeniaria
- Informatikako ingeniaria
- Soziologia

LEHEN ZIKLOKO KARRERAK

- Enpresa Zientziak
- Erizaintza
- Nekazaritzako ingeniari teknikoa:
 - Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak
 - Hortofrutikultura eta Lorezaintza
 - Nekazaritza eta Elikadura industriak
- Elektrizitateko ingeniari teknikoa
- Mekanikako ingeniari teknikoa
- Kudeaketarako Informatikako ingeniari teknikoa
- Telekomunikazioetako ingeniari teknikoa (Soinu eta Irudiaren espezialitatea)
- Maisu-maistra:
 - Haur Hezkuntza
 - Musika Hezkuntza
 - Lehen Hezkuntza
 - Atzerriko Hizkuntza
- Lan Harremanak
- Gizarte Lana

Nafarroako Unibertsitatean onartzea eta matrikulatzea

Unibertsitate honetako ikasketetako lehen kurtsoan onartua izateko, ikasleen puntuaziorik onena aintzat hartzen da. Horretarako, kontuan hartzen dira Batxilergoko ikasketa espedienteak eta unibertsitateak berak jarritako probetan ateratako kalifikazioak. Matrikulatzeko hau egin behar da:

1. Eskabidearen inprimakiak Ikasleei Argibideak emateko Zerbitzuan lor ditzakezu (Eraikin Nagusia, Nafarroako Unibertsitatea, 31080 Iruña) Tel.: 948 425614; Faxa: 948 425619. E-mail: sie@unav.es
2. Abenduaren 15etik maiatzaren 15 bitartean aurkeztu behar dituzu onarpenaren eskabidearen inprimakia, kalifikazioen ikasketa ziurtagiria eta argazkiak. Tramitatzekeo gastuak ordaindu behar dira. Hori guztia zuk zerorrek eraman dezakezu edo postaz bidali.
3. Eskabidea aurkeztu duzula egiaztatzen duen gutuna hartuko duzu etxean.
4. Onarpen probak maiatzeko bigarren hamabostaldian edo ekaineko lehen egunetan egiten dira. Baiteste fakultate batzuetan jende guztiendako egiten den jardunaldian egitea, martxoan eta apirilean.
5. Ekaineko bigarren hamabostaldian hartuko duzu proben emaitza postaz.
6. Azkenik, ikasketa espedientearen lekualdatzea eskatu behar da Unibertsitateko Idazkaritza Nagusian. Gero, matrikula egin behar da.

Matrikula egin ahal izateko, Unibertsitatean sartzeko probak ("selektibitatea") gairidurik izan behar dituzu.

Iruñeko zentroez gain, Nafarroako Unibertsitateak baditu beste zentro batzuk Donostian, Madrilan eta Bartzelonan.





Nafarroako Unibertsitateak ematen dituen ikasketen zerrenda:

LEHEN ETA BIGARREN ZIKLOKO KARRERAK

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza (LADE)
- Arkitektura
- Biologia
- Zuzenbidea
- Ekonomia
- Ekonomia/LADE + Zuzenbidea *
- Farmazia
- Filologia Hispanikoa
- Filosofia
- Historia
- Giza Zientziak
- Industria Ingeniaritza (Donostian)
- Medikuntza
- Pedagogia
- Kazetaritza
- Kazetaritza + Filosofia *
- Publizitatea eta Harreman Publikoak
- Publizitatea eta Harreman Publikoak + Filosofia *
- Kimika

BIGARREN ZIKLOKO KARRERAK

- Biokimika
- Ikus-entzuzkoen Komunikazioa
- Ikus-entzuzkoen komunikazioa + Filosofia *
- Industriako Automatika eta Elektronikako Ingeniaritza (Donostian)
- Materialen Ingeniaritza (Donostian)
- Industriako Antolaketako Ingeniaritza (Donostian)
- Psikopedagogia
- Telekomunikazioetako Ingeniaritza (Donostian)

LEHEN ZIKLOKO KARRERAK

- Arkitektura Teknikoa
- Erizaintza
- Giza Elikadura eta Dietetika

* Lizentziatura bikoitza

UNED (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala)


Unibertsitate honetan ikasteko, Unibertsitatean sartzeko proba edo 25 urtez gorako proba gairiduririk izan behar dira. Hasteko, ikaspostuak ez daude mugatuta. Nolanahi ere, izena aurretik eman behar duzu ekainaren 20tik uztailaren 31 arte. Matrikula gero eginen duzu, irailaren 15etik urriaren 15 bitartean.

UNEDen ikasketen zerrenda:

- Sarbide ikastaroa (25 urtez gorakoentzat)
- Zuzenbidea
- Geografia eta Historia
- Filologia Hispanikoa
- Ingeles Filologia
- Zientzia Ekonomikoak
- Enpresa Zientziak
- Zientzia Fisikoak
- Matematika
- Zientzia Kimikoak
- Industria Ingeniarren Goi Eskola Teknikoa
- Zientzia Politikoak
- Soziologia
- Psikologia
- Hezkuntza Zientziak
- Filosofia
- Sistemen Informatikako Ingeniaritza Teknikoa
- Kudeaketako Informatikako Ingeniaritza Teknikoa
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza
- Ekonomia
- Haur Hezkuntza (gairuntza ikastaroa)
- Psikopedagogia
- Gizarte Hezkuntza
- Irakaskuntza Irekiko Programa
- Irakasleen Prestakuntzarako Programa
- Hirugarren Zikloko ikasleak (Doktoregoa)
- Pedagogia
- Historia
- Ingeniaritza Industriala



UNEDI ATXIKITAKO NAFARROAKO ZENTROAK



Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalari atxikitako bi zentro daude Nafarroan: Iruñekoa eta Tuterakoa. Zentro horietan egiten dira ikasketa bakoitzerako matrikula eta azterketak. Zentro atxiki horietan arestion aipatu ikasketa gehienetarako laguntza ematen zaie ikasleei, bai bertaratutako tutoretzekin, bai tutoretza telematikoe-kin.

Argibide gehiagorako, jo zuzenean ondoko hauetara:

UNED - IRUÑA
Zadarreko errep., z/g. Iruña
Tel.: 948 243 250
E-mail: info@pamplona.uned.es

UNED - TUTERA
Magallón, 8. Tutera
Tel.: 948 821 535
E-mail: info@tudela.uned.es

Zerbitzuak eta bekak

Zentro bakoitzak –kontuan izan behar dira kokapena, tamaina eta instalazioak– hainbat zerbitzu eskain ditzake, hala nola, jantokia, liburutegia, egoitzak, egoitza nagusiak, kirola eta aisiarako jarduerak eta abar. Zerbitzu horien gaineko argibideak emanen dizkizute Unibertsitate bakoitzean, Ikasleari Argibideak emateko Zerbitzuan, Ostatu Zerbitzuan eta abarretan.

Bekei dagokienez, deialdi orokorraren barnean sartzan dira unibertsitateko laguntzak. Horretarako, hainbat beharkizun orokor, akademiko eta ekonomiko bete behar dira.

Laguntzak askotarikoak dira:

- ikasketak eta matrikula
- garraioa (Nafarroako Gobernuak badu berak antolatutako unibertsitate garraioa)
- jantokia
- egoitza
- aparteko laguntza

Era berean, Nafarroatik kanpo unibertsitateko ikasketak egiteko diru laguntzak eskatzen ahal dituzu; baina, horretarako baldintza batzuk bete behar dituzu.

SALBUESPENAK

Zenbaitetan ez da matrikula tasarik ordaindu behar, adibidez, familia nagusia denean, bekaduna denean



eta abarretan. Ez dute lehen kurtsoko ikasketa tasarik ordaindu beharko Batxilergoan "Ohorezko Matrikula" ateratzen duten ikasleek.

ERASMUS PROGRAMA

Ikasleei ematen zaizkien laguntza bereziak dira: ikasleak atzerriko unibertsitateetara joateko Europako Batasunak egin dituen programak. Programa horietan bi ekintza mota egiten dira:

- Unibertsitateak diruz laguntzen dira beren jardueren munta europarra handitzeko: ikasleen mugikortasuna, programa trinkoak, prestatze bisitaldiak, kredituak lekualdatzeko europar sistema, ikasketa planak batera prestatzea, sare telematikoen proiektuak.
- Ikasleak batetik bestera mugitzeko beka.

Gai horien gaineko informazio zabala duzu, zein unibertsitateetan sartu nahi duzun, hango idazkaritzan. Halaber, Nafarroako Gobernuak laguntza osagarriak ematen ditu.

SENEKA PROGRAMA

Diru laguntzak dira, eta karrerako azken bi kurtsuetako ikasleei aukera ematen die espainiar unibertsitateetan batetik bestera mugitzeko.



BESTE IKASKETA BATZUK

ARAUTU GABEKO IKASKETAK

Unibertsitateko ikasketez eta Araubide Bereziko Ikasketez gain, baduzu beste prestakuntza mota bat: "arautu gabeko ikasketak". Ikasketa espezializatuen eskaintza zabala da. Horietan sartzeko baldintzak askotarikoak dira eta ikasketa horiek gaindituz gero, zentroek beren tituluak ematen dituzte, baina **balio akademiko ofizialik gabeko tituluak dira ez baitaude homologatuta.**

Homologatu gabeko tituluak ematen dituen zentro bat baino gehiago dago Nafarroan:

- MERKATARITZAKO KUDEAKETAKO ETA MARKETINEKO GOI ESKOLA (ESIC-NAFARROAKO MARKETIN ELKARTEA)

Merkataritzako Kudeaketako eta Marketineko Diplomatura ikas dezakezu. Hori gaindituz gero, zuzenean sar zaitzke beste zentro batzuetako ikasketa batzuetan, hala nola, Merkataritzako Kudeaketako eta Marketineko Lizentziaturan, ESIC-Madrilen edo ESIC-Valentzian, eta Florida Atlantic University-ko 4. kurtsoan. Diplomatura hori hiru urtekoa da.

Halaber, Florida Atlantic University-ri atxikiriko "Bachelor in Business Administration" titulua ematen du. Ameriketako Estatu Batuetan ofiziala da, baina hezkuntza sistema espainiarrean ez dago onarturik.

Argibide gehiago

- NAFARROAKO INFORMATIKA INSTITUTUA (INAI).

Bertan Kudeaketako eta Sistemetako Informatika egin dezakezu. Titulu hori ofiziala da Erresuma Batuan eta hango unibertsitateko beste goi ziklo batzuetan sartzeko balio du.

Hiru urtekoa da. Gida honetan agertzen diren ikasketen gainean argibide gehiago izan nahi baduzu, ondokoa egin dezakezu: ikasketa bakoitzari buruz dagoen bibliografia zabala kontsultatu edo harremanetan jarri zure Ikastetxeko Orientabide Departamentuarekin, unibertsitateetako Informazio Zerbitzuekin edo Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza eta Kultura Departamentuarekin.



Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Guraso eta Ikasleentzako Argibide eta Aholku Bulegoa
Tel.: 948 426 617
www.pnte.cfnavarra.es
educacion.informacion.alumnos@cfnavarra.es



Argitaratzailea:

Diseinua:

Argazkiak:

Inprimatzailea:

L.G.:

Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua

Rebeca Arrarás

Larrión y Pimoulier, Photodisc

Gráficas Ona

NA-989-2003